# AGATE DEUNA BEZPERA

*Agate Deuna bezperako kantu kalejiraren egokitzapena burutuko dugu ostegunean, otsailak 4, Laudio Ikastolan.*

*Bizi dugun egoerak ez du ohiko programa ahalbidetuko, baina ohiturari eutsi eta Ikastola eremua kopla zaharrekin girotuko dugu egunean zehar.*

***Hortaz, ez ahaztu ostegunerako makila eta euskal jantziak prestatzea!***

*Sehaska eta katuka mailatan, kamiseta zuria eta zapi koadroduna ekarri beharko dute, gainerako mailatan berriz, ohiko euskal jantziak.*

*Ostegunean bertan Ikastolako web orrian Haur eta Lehen Hezkuntzako burubuilen bideo sorta eskainiko dugu eguneko grabaketekin.*



*Horrez gain, arratsalde partean Kriskitin euskara taldeak burutu ohi duen kantu kalejira eta askaria ospatu ezinik, herriko gainerako ikastetxeekin batera kaleak girotzeko ekimena adostu da eta udal megafoniatik herriko haur eta gazteek grabatutako koplak entzun ahal izango dira.*

***Eup!***